


URRUTIA'TAR GOTZON AITA

ERDERAZKO LIBURU BAT

Erderazko liburu bat aitatzen dogu gaur gure ZER onetan, erderazko liburua bai, baiña euskadunentzat irakatsi eta eredu ederra agertzen dauana.

Urkidi'tar Timoteo Klaret'tarrak idatzia da eta bizitzan eta eriotz-ostean isillean edo erdi-isillean izan dogun euskaldun aundi bat ateraten dausku argitara. Aita Urruria, 1890'tik 1975'era bizi izan zana.

Kardaberaz'tarren batzarretan eta Euskera-zaintza'n ondo ezaguna dogu Gotzon Urrutia eta lar isillegi joan-ete jakun nago. Ondo dator ba liburu au.



LARRIALDIAN

Aita Gotzon'en bizitzeak gure erriaren kondairabarruan larrialdi luze bat artzen dau: Arana'tar Sabin'en eragiñña erriratu, erriaren bizitasunaren aurka guda mingarria izan eta lengo bizitasunera urreratzen ta aurrera jarraitzeko aspaldian diran ekiñaldi barriak.

Larrialdi orren barruan larritasunez beterik daukagu euskaldun onen bizitzea. Bere inguruan bizi diran erri-zale askoren bizitzearen antzekoa.

Askok eriotzea aurkitu eben; Gotzon'ek eta beste ia 500 abadek, aurrean erabillien eta erbesteratuen bizikera larria.

ERRIRA BEGIRA

Euskalzale askoren jokabidea ta Gotzon'ena onetan dira antzekoak: Errira begiratu, erria otsendu, erriari lagundu, gudaldian batez be, arerioai be lagundu... goikoengandik beti, albokoengandik sarri eta laguntza artu daben arerioengandik geienetan, jazarpena, ulertu-eziña, zigorra, erbestea ta olakoak.

Bere eleiz-taldearen aldetik, Eijo y Garai'gotzainaren aldetik, gauzak iñoz argitu barik, olako era-soak izan ebazan Gotzon'ek. Zartzaroan ikusi al izan eban argitasun apur bat.

BIZITZA-UNEAK

Aita Gotzon'en ondoan beti izan zan erri-zaletasuna eta onen aurkako, zapalkuntza.

Ikasketa-aldian bere euskerea erabiltea galazota, eleiz-aginterien aldetik.

Gernika'ko Berbaldi ospetsu ta eder biak, euskerearen eskubideak zaintzeko ain egokiro ta ederto egin ebazanean, batez be eleiz-nagusien aldetik.

Gudaldian, Agirre Lendakariagandik asi eta azkenengo erritarrari bere laguntza emon eutsonean, lagun ala arerio zan berezitu barik, une larri areri egokion lez.

Gorliz'ko ume erbesteratuakaz Frantzia'ra joan zanean.

Gero Ingalaterra'ra erbesteratzean.

Andaluzia'n egin bearizan eban egotaldi luze ta aspergarrian.

Bizitzaren azkenerantza, bear ba'da, pozaldi batzuk: Euskerearen eta ikastolen, aldeko lanean, bere Eleiz-Taldeak Euskadunentzat Eskualde berezia eratzea lortzeko lanetan...

Eta olako lan luze ta garratzetan naikotu barik jarraitu eban Gotzon'ek, bere euskalzaletasuna, bere Eleiz-Taldea eta bere fedea galdu barik, aurrera ta aurrera beti.

Eredu dogu ba gure Gotzon auskaldun fededunok.

OLAZAR'tar MARTIN'ek